



Erregea eta baserritarra

Errege bat ihizira joan zen egun batez. Han, bide bazterrean, baserritar bat ikusi zuen.

– Zer ari zara hemen?

Baserritarrak, xapela altxatuz:

– Entzun dut errege bat hemendik pasatu beharra dela egun. Orduan zain nago noiz iraganen den, sekula ez baitut nik erregerik ikusi.

Erregeak:

– Ene zaldiaren gainean jarri nahi duzua? Toki batera eramanen zaitut eta han ikusiko dugu erregea.

Baserritarra, "Ieeeup!" eginez, zaldiaren gainera igan zen.

Elkarrekin abiatu ziren baina gure baserritarrak galdegin zion:

– Eta nola deabru jakinen dut erregea nor den?

– Nola ezagutuko duzun erregea? Aise da! Eramanen zaitudan lekuan denak, bai denak, **buru has** emanen dira. Orduan xapela buruan gelditzen den pertsona hura bera da erregea.

buru has: buru gainean deus gabe. Xapela burutik kendurik.